

Jaio ginen eta bizitzea zor

GOZOA DA algarrobondoaren leka, *Ceratonía siliqua*. Arbolaren zurak bezala, lekak, gozoa izateaz gain, erabilera ugari du. Guk txokolataren ordezeko bat egiteko darabilgun leka hori koioteen gutizia da, Kalifornia aldean. Olibondoak (*Olea europaea*) edo sagarrondoak (*Malus x domestica*) bezala, Europan zenbat gauzatarako egokia zen ikusirik, AEBetara algarrobondoak eramatea otu zitzaion baten bati. 1856. urtean, Espainiatik, 8.000 landare eramán zituzten eta Florida, Arizona, Texas eta Kalifornian aldatu. Ondoen Kaliforniako bizi-modura egokitu zen, etsi-etsian ederki moldatu ere. Geuk bezala landareek ere badakite “jaio ginen eta bizitzea zor” esaten. Egun lan-

dare inbaditzailetzat dute han. Epaia eman eta ipurditik moztuta ere, altsuma ugari indarrean emanez ederki ernaberritzen da. Baldintza ekologikoak, klima eta lurra batez ere, ote dira Kalifornian beste lekuetan baino hobeak algarrobondoarentzat? Ala, bere lekazalea den animalia bat han baino ez du aurkitu? Koiotea. Hark, lekak janez, haziak barra-barra barreiatuko ditu, han eta han. Algarrobondoak zer atarramendu luke koioterik gabe? Naturan hain ugaria den elkar laguntzearen beste adibide baten usaina hartzen diot nik txokolate horri...

Likenak dira horrelako elkartzeen adibide ezagunenetakoa. Onddo baten eta alga baten elkar-

tea da likena. Biek etekin ona ateratzen dute. Eguzki irraden eta lehortearen aurrean babesak dakar onddoak, eta algak, landareek bezala, fotosintesia egiteko gaitasuna. Bitasun horrek ikaragarritzko arrakasta izan du guk “gure” deitzen dugun mundu honetan. Euskarazko Wikipediak dioenez hogeit hamar milioi espezie inguru liken dira, katalanezkoak, aldiz, 20.000 bueltan direla dio. Batek daki! Zerbait izango da. Zenbat mila gorabehera, lurreko azaleraren ehuneko sei likenek harrapatua omen dago. Elkartzak izugarritzko indarra eransten dio eta ia beste inor bizi ezin daitekeen tokietan ere hazi eta bizi dira. Basamortu idorrenetan, polo izoztuetan... Likenek gai berezi batzuk sortzen dituzte, zeinak medio, ura eta argia hobeto baliatu eta hondakinak kanporatzeko gaitasuna aragotzen baituten. 2005ean, Madrileko Complutense Unibertsitateko irakasle Leopoldo Sanchok, Errusiak jaurtitako Soyuz ontzi batean espaziora bidali zituen bi liken. Hamabost egunez ontzitik kanpora izan zituzten, espaziora hutseko irrada eta temperatura goiti-beheitzeko izugarriren mende. Bueltan etorri zirenean, inongo kalte arrastorik gabe, ongi bizitzen jarraitu zuten. Jaio ziren eta bizitzea zor. ■

Likena zuhaitz adar batean. Lurreko azaleraren %6 estaltzen omen dute likenek.



NORBERT NAGEL-CC BY SA



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, zer gertatzen zaie gure azaloreei? Baratzetan hasi berriak gara eta alferrik galduz gero nahigabe ederra hartuko genuke. Eskerrik asko

Intza Etxeberria (Hernani)

Kaixo Intza. Nire iritiz bi arazo uztartu daitezke azaloren koba edo buru honetan: temperatura gorabeherak eta gaitza. Zulotxo eta arrasto gorri horiek buruaren tontorrean azaltzeak izotzaren azioa izan daitekeela dio. Ur tantak bildu, eta gero hotzak ttantak izoztu eta



horiek azalora fina erre. Erreduretatik gaitza sartzea erraza da, batik bat giro epelak badira, aurten bezala. Beraz ahal bezain azkar jan eta goza. Eutsi baratzeari! ■